

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

3159

AGINDUA, 2026ko ekainaren 23koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baitira irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei GIB/hiesa, C hepatitis (CH) eta sexu-transmisiozko infekzioak (STI) prebenitzeko eta kontrolatzeko programak EAEn gauzatzeko laguntzak emateko deialdiaren oinarriak.

GIBaren/hiesaren, CHren eta STIen alorrean irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeek EAEn gauzatutako jarduerak, herri-administrazioek burututako jarduerekin batera, ezinbesteko tresna dira infekzio horien transmisioa prebenitzeko eta dagoeneko gaixotasuna duten pertsonen egoera hobetzeko lanean.

Euskadi 2030 Osasun Planaren 2.1.1 helburua da, ekitatearen ikuspegitik, ohitura osasungarriak hartzea erraztuko duten sektore arteko estrategiak diseinatzea eta ezartzea (arreta berezia jarritz elikaduran, jarduera fisikoan, tabakoaren, alkoholaren eta beste substantzia batzuen kontsumoan, mendekotasun-potentziala duten jokabideetan, sexu-praktika seguruan, laneko segurtasunean...).

Plan horren 2.2.2 helburuan jasotzen da, orobat, gaixotasun onkologikoetan, neurodegeneratiboetan, kardiobaskularretan, arnasketakoetan, mentaletan, sexu-transmisiozko infekzioetan, gizentasunean, hipertentsioan, diabetesean, gaixotasun metaboliko eta arraroetan eta sortzen ari diren beste baldintza batzuetan DAGBU (degaitasunaren arabera galdutako bizitza-urteak) gehiago galtzea eragiten duten baldintzetarako prebentzio-plan espezifikoak indartzea, hedatzea eta zabaltzea, txertaketa-estrategiak eta populazio-baheketak indartzea barne.

Aipatzekoa da, halaber, 2.2.3 helburuan, kolektibo behartsuenen edo dauden baliabideak eskuartzeko aukera txikiago dituztenen osasun-sustapena, -prebentzioa eta -laguntza bermatzea, desberdintasun-ardatzen bidez.

2022-2030 aldirako GIBaren infekzioa eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuk prebenitzeko eta kontrolatzeko plan estrategikoak lau helburu estrategiko nagusi ezartzen ditu:

- 1.– GIBaren eta sexu-transmisiozko beste infekzio batzuen (STI) prebentzio konbinatua sustatzea.
- 2.– GIBaren eta STIen diagnostiko goiztiarra sustatzea.
- 3.– GIBaren eta STIen tratamendu goiztiarra sustatzea eta GIBagatiko infekzioaren kronikotasuna maneiatzea.
- 4.– GIBa duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea.

Osasun Sailaren 2024-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoak (PES 2024-2028) eranskinaren 3.1.1 epigrafean dio «GIB/hiesa, C Hepatitis edo Sexu-Transmisiozko Infekzioen alorreko laguntzak» irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeentzakoak GIB/hiesa, sexu-transmisiozko infekzioak eta C hepatitis prebenitzeko eta kontrolatzeko programak gauzatzeko «Osasunaren sustapena eta gaixotasunen prebentzioa» arloan. Laguntzei buruzko agindu hau bat dator plan estrategiko horrekin, bai eta Osasun Sailaren 2026ko ekitaldiko Dirulaguntzen Urteko Planarekin ere. Plan hori Osasuneko sailburuaren 2026ko otsailaren 6ko Aginduen bidez onartu zen. Bi plan horiek organo sustatzailearen bulegoetan kontsulta daitezke, hau da, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritzan, edo Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoen bidez.

Testuinguru horretan kokatu behar da, halaber, Euskadin C Hepatitisari Arreta emateko Estrategia, Osasuneko sailburuak 2015eko uztailaren 14ko Aginduen bidez onartutakoa. Dokumentu horretako 2. estrategia-ildoaren oinarria da C hepatitisaren birusa (CHB) transmititzea eragotziko duten neurriak sustatzea. Zehazki, xede nagusi gisa ezartzen da «CHBaren transmisioa eragozteko prebentziozko neurriak sustatzea, osasunaren esparruan, zain barneko bidezko droga-erabiltzaileen eta gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoen kolektiboan».

Garatu beharreko jardueren artean ezartzen da, orobat, «Hiesaren eta Sexu Transmisiozko Infekzioen Planarekin elkarlanean jardutea bide parenteraleko droga-erabiltzaileen eta gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoen kolektiboekin».

CHak eta GIBak, hain zuzen, transmisio-bideak partekatzen dituzte hein batean (injektatutako drogen erabilera, gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoen arteko transmisioa), eta, beraz, prebentzio-neurriak eta gizarte-kolektibo ahulenak ere partekatzen dituzte. Hori dela eta, egoki ikusten da batera lantzea.

Testuinguru horretan, agindu honen xedea da irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeek 2026an egiteko proposatutako proiektuentzako dirulaguntzen deialdia arautzea. Jarduera horiek EAEn garatu behar dira eta GIBa/hiesa, CHa eta STIak prebenitzeko eta kontrolatzeko helburua izan behar dute.

Deialdi honen zein beraren ebazpen- eta izapidetze-jardueren esparru juridikoa bat dator honako xedapen hauek ezarritakoarekin: abenduaren 21eko 20/2023 Legea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa (aurrerantzean DAE); Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren oinarritzko arauak; Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren oinarritzko arauak, eta urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

Agindu honetako laguntzek ez dituzte betetzen EBren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. artikuluko 1. apartatuan jasotako betekizun guztiak, eta, beraz, ez dira estatu-laguntzak. Ondorioz, ez da beharrezkoa inongo izapidetzerik egitea Europako Batzordearen aurrean.

Agindu honek behar besteko aurrekontu-kreditua dauka Euskal Autonomia Erkidegoko 2026ko Aurrekontu Orokorretan dagokion partidan.

Horrenbestez, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Onartzea irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei GIB/hiesa, C hepatitis eta sexu-transmisiozko infekzioak (STI) prebenitzeko eta kontrolatzeko programak EAEn gauzatzeko laguntzak emateko 2026ko ekitaldiko deialdiaren oinarriak, I. eranskinean jasotako baldintzetan, eta deialdia egitea.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.— Araudia eta izapidetzea.

Agindu honen bidez onartzen den deialdia eta hura garatzeko egingo diren jarduketak Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean bildutako oinarritzko araudiaren mende egongo dira.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoaren arabera izapidetuko da prozedura.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Errekurtsoak.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du, eta, beraren aurka, elkarte interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean. Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira bi epeak.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek ondorioak izango ditu, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainak 23.

Osasuneko sailburua,
ALBERTO MARTÍNEZ RUIZ.

I. ERANSKINA

OINARRI ARAUTZAILEAK

1. oinarria.– Deialdiaren eremua eta xedea.

1.– Laguntzetarako deialdia egiten zaie Euskal Autonomia Erkidegoan 2026an GIBa/hiesa, C hepatitis edo sexu-transmisiozko infekzioak (STI) prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeei. Lehentasuna emango zaie maila sozioekonomikoan kalteberenak diren kolektiboei zuzendutako jarduerari, biztanleria orokorra xede duten jarduerak baztertu gabe, agindu honen 11. oinarrian xedatutako balorazio-irizpideen arabera.

Deialdi honen ondorioetarako, kolektibo kalteberatzat hartzen dira GIBa, C hepatitisaren birusaren eta sexu-transmisiozko infekzioen eragin- eta prebalentzia-maila handia dutenak, hala nola gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoak, etorkinak, bide parenteraleko droga-erabiltzaileak eta prostituzioan aritzen direnak.

2.– Deialdi honetako laguntzen onuradun izango dira EAEn garatzen diren honako proiektu mota hauek:

a) Gizonezkoekin sexu-harremanak dituzten gizonezkoen kolektiboarekin esku hartzeko proiektuak, ikusirik nolako intzidentzia epidemiologikoa duten GIBak, C hepatitisak eta STIak kolektibo horretan.

b) GIB/Hiesari, C hepatitisari eta sexu-transmisioaren bidezko infekzioei dagokienez ere kalteberak diren beste kolektibo batzuei zuzendutako proiektuak: etorkinak, bide parenteraleko droga-erabiltzaileak, prostituzioan diharduten pertsonak eta, oro har, gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak.

c) C hepatitis, GIBa eta sexu-transmisioaren bidezko infekzioak goiz detektatzeko proiektuak.

d) GIBarekin bizi diren pertsonen babes psikologikoa eta soziala emateko proiektuak.

3.– Deialdi honetan diruz lagundutako ekintzetatik kanpo geldituko dira Osakidetza edo Osasun Sailak garatutako jardueren parekoak diren ekintzak. Ondorio horietarako, kanpo gelditzen dira ikastetxeentzat prestatutako material pedagogikoa, hain zuzen ere sexualitatearen eta afektibitatearen heziketarako programak garatzekoa eta GIBa, STIak eta nahi gabeko haurdunaldiak prebenitzekoa.

2. oinarria.– Entitate onuradunak.

1.– Deialdian parte hartzeko interesa duten irabazi-asmorik gabeko eta ekimen sozialeko erakundeek honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Erakundeek legez eraturik egon behar dute, eta erregistro administratibo ofizialean behar bezala izena emanda, horien izaera juridikoaren (erakundea, elkarte edo bestelakoak) eta egoitza sozialaren lurraldearen arabera, deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta urtebete lehenagotik gutxienez.

b) Irabazi-asmorik ez izatea.

c) Beteta izatea, bai Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak, bai dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak, bat etorrita Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduarekin –Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan–.

d) Ez dute egon behar DAeren 13.1 eta 4. artikulua erakunde onuradun izateko ezartzen duen debekuren baten eraginpean.

2.– Sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarri zaien pertsona fisikoak eta juridikoak ezin izango dira dirulaguntzak jasotzeko aurkeztu, dagokien zehapenean ezarritako denbora-tarte osoan. Era berean, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresak, bai, halaber, estatu-legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak ere.

3.– Entitateek prozesu osoan bete beharko dituzte betekizun horiek guztiak, harik eta emandako dirulaguntza likidatu arte.

3. oinarria.– Deialdiaren aurrekontu-zuzkidura eta organo kudeatzailea.

1.– Agindu honen helburua betetzeko, 300.000 euro bideratuko dira (hirurehun mila euro).

2.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria da deialdiaren organo kudeatzailea.

4. oinarria.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Proiektuari zuzenean lotutako gastu hauek lagunduko dira diruz (zuzeneko gastuak):

a) Entitatearen langile propioak (nominak eta Gizarte Segurantzako gastuak).

b) Profesional independenteen zerbitzuak.

c) Ekipamenduak eta materialak.

d) Argitalpenak eta komunikazio-jarduerak.

2.– Zeharkako kostuen kontzeptuan eskatutako zenbateko osoaren % 15 lagunduko da diruz, gehienez ere. Zeharkako kostuak dira entitatearen egiturazko gastuak, azpiegitura fisikoenak barne, baita dieta-, desplazamendu- eta kudeaketa-gastuak ere, beharrezkoak direnak dirulaguntza jaso duen jarduera bat egiteko, zuzenean jarduera jakin horri ez dagozkion arren.

3.– Aipatutako gastuak dirulaguntza jaso baino lehenagokoak izan ahal izango dira, baina, betiere, 2026an eginak.

4.– Ez dira diruz lagunduko finantza-gastuak, lizentziak, inbertsio-gastuak, interesetatik eratorritako gastuak, errekareruak, zehapen administratiboak zein zigor-arlokoak (hala nola zergak edo Gizarte Segurantzaren ez ordaintzeagatik eratorritako zehapen administratiboak), ezta prozedura judizialen gastuak ere.

5.– Diruz lagunduko dira ezarritako epean egindako gastuak, hau da, egiazki ordaindu direnak. Diruz lagundu daitezkeen gastuak, edozein kasutan, DAeren 30., 31. eta 30.3 artikuluetan ezarritako arauen mende daude.

6.– Diruz lagundutako jarduerak garatzeko hirugarren pertsonak kontratatu behar izanez gero, DAeren 30., 31. eta 30.3 artikuluetan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte erakunde onuradunek. Diruz lagundutako jardueretan onuradunen kontratazioaren proportzioa ezin izango da diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50 baino handiagoa izan.

7.– Halaber, erakunde onuradunak, dirulaguntzaren xedeko jardura egiteko egin beharreko gastuak kontratatzeko, DAEn 30., 31. eta 30.3 artikuluan aurreikusitakoa bete beharko du, baldin eta diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratazioa arautzeko legerian kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak baino.

5. oinarria.– Dirulaguntzen bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan araututako dirulaguntzak bateragarriak dira edozein administraziok edo erakunde publiko edo pribatu, nazional, Europar Batasuneko edo nazioarteko organismok jardura bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide ekonomikoekin. Dirulaguntzaren zenbateko soilak edo gainerako finantzaketa-iturriekin bateratuak ezingo du inola ere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditi.

2.– Proiektu bera gauzatzeko finantzaketa-iturriek emandako laguntzen zenbatekoa proiektuaren kostua baino handiagoa izanez gero, agindu honen babesean emandako dirulaguntzaren zenbatekoa kostuaren zenbatekora murriztuko da.

6. oinarria.– Dirulaguntzen zenbatekoaren mugak.

Proiektu bat diruz lagundu daitekeela uste izanez gero, laguntzaren zenbatekoak ez du gaintutuko inondik eta inora:

a) Eskatutako zenbatekoa.

b) Diruz lagundu daitekeen gastuaren aurrekontu osoaren % 80.

c) 25.000 euro proiektuko.

7. oinarria.– Eskabidea eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Eskabideak bide telematikoz aurkeztuko dira, 20 oinarrian adierazitakoaren arabera.

2.– II. eranskinean zehazten dira eskabideetan adierazi beharreko datuak. Datuak egoitza elektronikoaren inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira, agindu honen 20 oinarrian xedatutako moduan sarbidea eginda.

3.– Eskariarekin batera atxikiko dira agiri hauek, eskarian bertan baldin badago eskudun administrazio publikoetan zuzenean ziurtagiria lortzeko aurkakotasuna:

– Dagokion administrazio-erregistroan eratu eta inskribatu izanaren egiaztagiriaren kopia.

– Zerga-betebeharrak egunean izatearen egiaztagiria.

– Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen egiaztagiria.

4.– Elkarrekin proiektua hobeto azaltzeko garrantzitsutzat jotzen duen beste edozein dokumentazio.

8. oinarria.– Datuak eta betekizunak egiaztatzea.

Entitateak, eskabidearen bitartez, aurka egin ahal izango dio organo kudeatzaileak dagokion administrazio publikoan entitatearen nortasun-datuak kontsultatu edo biltzeari, eta, halaber, betekizunak betetzen diren egiaztatzeari. Horrelakoetan, entitateak ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu nahitaez. Eskabideak gutxienez honako hauei buruzko erantzukizunpeko adierazpenak jasoko ditu:

1.– Dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean edukitzea.

2.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

3.– 20/2023 Legearen 13.1 eta 13.4 artikuluek adierazitako egoeretako batean ere ez egotea:

- Epai irmo baten bidez zigortuta egotea dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin.

- Borondatezko konkurtsoan deklaratura egotea, kaudimenik gabekotzat edo konkurtsoan deklaratura egotea (non eta konkurtso horretan ez duten hitzarmen bat adostu), esku-hartze judizialaren mende egotea, edo konkurtsoa sailkatzeko epai baten bidez desgaitua izatea.

- Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa eragin izana, errudun deklaraturik izateagatik.

- Administrazioaileak edo elkarten legezko ordezkariak dutenak abenduaren 26ko 52/1984 Legearen eta ekainaren 26ko 1/2014 Legearen aurreikusitako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean egotea, edo ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko karguren bat izatea.

- Indarreko legediaren arabera dirulaguntzak lortzeko aukera galtzeko zehapena jaso izana ebazpen irmo baten bidez.

- Desgaitasuna duten pertsonentzat legez ezarritako erreserba-kuota ez betetzea, eta hori betetzeko beste neurri batzuk hartu direla egiaztatu ez izana.

- Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikuluen 5. eta 6. apartatuetan aurreikusitako debeku-kausak izatea.

4.– Eskatuta edo emanda izatea, edo ez, helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk, edozein administrazio publikotakoak edo ente publiko edo pribatutakoak, izan estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko organismoetakoak. Erantzuna baiezkoa bada, zenbatekoa zehaztu beharko du, eta gainfinantzaketarik ez izateko konpromisoa adierazi.

5.– Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan indarrean dagoen araudia betetzea, sexu-jazarpenari eta berdintasun-planei dagokienez, agindu honen 2.2 oinarriaren arabera.

Organo kudeatzaileak egoki deritzen egiaztapen guztiak egin ahal izango ditu prozedura legezkoa dela bermatzeko. Nolanahi ere, laguntzak eman aurretik eta ordainketa bakoitza egin aurretik, behar den egiaztapena egingo da.

Erantzukizunpeko adierazpen bateko datu, adierazpen edo dokumenturen batean funtsezko zehaztasunik eza, faltsukeria edo omisioren bat hautematen bada, entitate eskatzaileak ezin izango du prozeduran jarraitu egitate horien berri jakiten den unetik aurrera. Gainera, bestelako erantzukizun penal, zibil edo administratiboak eskatu ahal izango dira.

Halaber, egoera horien berri ematen duen administrazio publikoaren ebazpenak xeda dezake entitate interesdunak itzuli egin behar duela dirulaguntzaren zenbatekoa, hala badagokio, bai eta denbora-tarte jakin batean ezingo duela abian jarri ere helburu berbererako beste prozedura bat; hori guztia, aplikatu beharreko arauetan ezarritakoarekin bat eginez.

9. oinarria.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

1.– Hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariari zuzenduko zaio eskabidea.

2.– Eskaera bat aurkeztu behar da irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeak aurkeztutako proiektu bakoitzeko.

3.– Eskabideak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa erabilita (20. oinarrian adierazia).

4.– Eskabidea aurkezten duen pertsonak ziurtagiri elektronikoa baten bidez identifikatu behar du bere burua:

a) Entitatearen ziurtagiri elektronikoa erabiltzen badu, ez du beste egiaztagiririk behar.

b) Pertsona fisikoen ziurtagiri elektronikoa erabiltzen badu, agindu honetako 20.2 oinarrian aipatutako ahalordetzeen erregistro elektronikoa inskribatuta dagoela egiaztatu beharko du.

5.– Entitate eskatzaileak eskabidea eta gainerako dokumentazioa aurkezteko hizkuntza ofiziala aukeratu behar ditu. Prozesu osoan erabiliko da eskatzaileak hautatutako hizkuntza, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 6.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

10. oinarria.– Eskabidearen akatsak zuzentzea.

Hasiera-eskabideak ez baditu betetzen oinarrietan eskatutako baldintzak, Administrazioak hamar egun balioduneko epea emango dio erakunde eskatzaileari akatsa zuzentzeko edo behar diren agiriak aurkezteko. Halaber, adieraziko dio ezen, hala egiten ez badu, ulertuko duela eskabidean atzera egin duela. Administrazioak eskabide horiei buruzko ebazpen espresua eman eta jakinarazi beharko du, hala ezarrita baitago Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 artikuluan, zeinak lotura baitauka 21. artikularekin.

11. oinarria.– Proiektuak baloratzeko irizpideak: 100 puntu.

1.– Jarraian zehazten diren balorazio-irizpideak erabiliko dira eskabideen lehentasun-ordena ezartzeko.

a) GIBarekin, STIekin eta CHarekin lotutako jardueren lehentasun-maila erakundearen xedean: 20 puntu, gehienez.

1.– GIBarekin, STIekin eta CHarekin lotutako jarduerak berariaz sartzeari erakundearen estatutuen xedeetan (4 puntu).

2.– Jarduera horiek lerro estrategiko nagusi edo lehentasunezko zatik sartzeari erakundearen plan, programa edo memorietan (4 puntu).

3.– Jarduerak denboran jarraikortasuna eta egonkortasuna izatea (4 puntu).

4.– GIB, STI eta CHan berariazko prestakuntza izatea langileek eta/edo boluntarioek. (4 puntu).

5.– Jardueren lerrokatze-maila arlo horretako estrategia eta plan autonomikoekin, nazionalekin edo nazioartekoekin. (4 puntu).

b) Proiektuaren justifikazioa eta helburuak: 8 puntu, gehienez.

1.– Justifikazioa: 3 puntu, gehienez.

2.– Helburu orokorrak eta berariazkoak: 5 puntu, gehienez.

a) Proiektuaren helburuen aipamena: 3 puntu.

b) Proiektuaren helburuen azalpena: 2 puntu.

- c) Aurreikusi den proiektu-garapenaren deskribapena: 26 puntu, gehienez.
- 1.– Proiektuaren jardueren eta lan-egutegiaren deskribapena: 15 puntu, gehienez.
 - a) Proiektuaren faseen deskribapena: 13 puntu, gehienez.
 - b) Proiektuaren lan-egutegiaren deskribapena: 2 puntu, gehienez.
 - 2.– Proiektua garatzeko giza baliabideen eta baliabide materialen deskribapena eta egokitasuna: 8 puntu, gehienez.
 - a) Giza baliabideak eta bitarteko materialak: 3 puntu, gehienez.
 - b) Baliabideen egokitasuna: 5 puntu, gehienez.
 - 3.– Proiektuaren hartzaile edo onuradun kopurua: 3 puntu, gehienez.
 - a) 0-50 hartzaile edo onuradun: 1 puntu.
 - b) 51-150 hartzaile edo onuradun: 2 puntu.
 - c) 150 hartzaile edo onuradun baino gehiago: 3 puntu.
- d) Proiektuaren ebaluazio aurreikusia: 9 puntu, gehienez.
- 1.– Adina, sexua, jatorria, bizilekua edo etnia kontuan hartuta zehazten ditu jardueraren onuradunak: 3 puntu, gehienez.
 - 2.– Proiektuaren jarraipen- eta inpaktu-adierazleak kontuan hartuta zehazten ditu: 3 puntu, gehienez.
 - 3.– Onuradunen gogobetetzeari buruzko adierazleak kontuan hartuta zehazten ditu: 3 puntu, gehienez.
- e) Proiektuan berdintasun-ikuspegia kontuan hartzen den: 18 puntu, gehienez.
- 1.– Genero-desberdintasunei arreta jartzea: 5 puntu, gehienez.
 - 2.– Pertsona edo kolektibo behartsuenek, gizarte-bazterkeria jasateko arriskuan daudenek eta, oro har, gizarte-egoera ahulean dauden pertsonen proiektuari onura ateratzeko aukerak areagotzen dituzten estrategiak: 8 puntu, gehienez.
 - 3.– Lurralde-arloko desberdintasunak artatzea (lurralde historiko berean antzeko ezaugarriekiko baliabide komunitariorik ez): 5 puntu, gehienez.
- f) Proiektuaren parte-hartze gradua: 15 puntu, gehienez.
- 1.– Gaixotasunen bat dutenek edo haien senideek parte hartzea proiektua diseinatzen edo/eta ebaluatzen: 5 puntu, gehienez.
 - 2.– Gaixotasunen bat dutenek edo haien senideek parte hartzea abian jartzen: 5 puntu, gehienez.
 - 3.– Beste esparru batzuetako elkarte edo entitateekin lankidetzan aritzea, elkarrekiko laguntza eta boluntarioritza sustatzeko (justifikazio-fasean, hemen baloratutako irizpideak betetzen direla egiaztatzeko eskatuko da): 5 puntu, gehienez.

g) Ingurune euskaldunetan euskararen erabileran edo euskaraz komunikatzeko gaitasunean hizkuntza-eskubideak bermatzea: 4 puntu, gehienez:

1.– Projektua euskaraz zabaldu eta komunikatzea. 2 puntu.

2.– Euskara erabiltzea proiektuarekin lotutako jardueretan: 2 puntu.

2.– Gehienez 100 puntu eskuratu ahal izango dira, eta, gutxienez, 50 puntu. 50 puntu baino gutxiago lortzen duten proiektuek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

12. oinarria.– Eskabideak baloratzea eta zenbatekoak zehaztea.

1.– Aurkeztutako eskabideak baloratzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da: Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria (Guillermo Herrero Alaña jauna), batzordeko lehendakaria izango da; eta kideak izango dira Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariorde kargua duten pertsonak Osasun Saileko lurralde-ordezkaritzetan (Joseba Bidaurrezaga Van-Dierdonck jauna, Elena Albisua Cortazar andrea) eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariordea Koldo Cambra Contín jauna). Kide anitzeko organoko idazkaritzari dagokionez, batzordeburuak batzordekideen artean izendatutako pertsonak beteko du. Haren zeregina izango da kide anitzeko organoaren jardueren legezkotasun formala zein materiala zaintzea, baita sektore publikoaren erregimen juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 16., 17. eta 18. artikuluetan adierazten diren bestelako funtzioak ere.

2.– Epean eta modu egokian aurkeztutako dokumentazioan oinarrituta baloratuko ditu eskaerak Balorazio Batzordeak.

3.– Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak eta Balioespen-batzordeak, beharrezko irizten badute, informazio eta dokumentazio osagarria eskatu ahal izango diete erakunde eskaizaleei, aurkeztutako proiektua edo jarduera hobeto ulertu ahal izateko.

4.– Dirulaguntzen zenbatekoa zehazteko, Balorazio Batzordeak erabakiko ditu, programa bakoitzean, bakoitzari eman dakioken gehieneko dirulaguntza eta jaso duen puntuazioa, agindu honen baitan adierazitako balorazio-irizpideen arabera.

Dirulaguntzak lehiaketa-prozeduraren bidez emango dira. Diruz lagundutako proiektu bakoitzari dagokion laguntzaren zenbatekoa zehazteko, banaketa proportzionaleko sistema bat aplikatuko da: balorazio-fasean lortzen den puntuazioaren arabera banatuko da 3. oinarrian zehaztutako zuzkidura ekonomiko osoa. Horretarako, lortutako puntu bakoitzari balio ekonomiko bat esleituko zaio, eta formula honen bidez kalkulatu da:

$$PB = AZ/PT$$

PB = Puntu bakoitzari esleitutako balio ekonomikoa.

AZ = Deialdiaren aurrekontu-zuzkidura.

PT = Dirulaguntza merezi duten proiektu guztiei emandako puntuazioaren batura.

Hasierako banaketa egiteko, balorazio-fasean lortutako puntuak puntu bakoitzari esleitutako balio ekonomikoarekin (PB) biderkatuko dira.

Hasierako banaketan esleitzen den zenbatekoak 6. oinarrian ezarritako mugaren bat gainditzen badu, muga hori aplikatuko da, eta soberakina balorazio-fasean lortutako puntuazioarekiko modu proportzionalean banatuko da muga horiek gainditzen ez dituzten proiektuen artean. Birbanaketa

hori egingo da banaketa baten ondoren mugaren bat gainditzen den guztietan edo diruz lagundutako eskabide guztiak gehieneko zenbatekora iristen diren arte.

Banaketan, gainditu egiten bada elkarte batentzat ezarritako muga, zenbatekoa proportzionalki murriztuko da diruz lagundutako proiektu bakoitzean lortutako puntuazioaren arabera.

5.– Ezarritako irizpideak aplikatuz, aurkeztutako proiektuen ebaluazio konparatua egin eta dagozkien zenbatekoak zehaztuko dira, eta, agindu honetan horri buruz xedatutakoaren arabera, Batzordeak txosten bat egingo du ebaluazio horren emaitza zehazteko.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, organo kudeatzaileak (Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendaria) ebazpen-proposamena egingo du, Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordeak sina dezan. Proposatutako dirulaguntzak jasoko dira bertan, eta zehaztuko da zein diren erakunde onuradunak eta proposatutako zenbatekoak, finantzatuko diren proiektuen arabera banakatuta, eta, hala badagokio, zer proiekturi uko egitea proposatzen den eta zergatik.

13. oinarria.– Ebazpena, errekurtsoak, ebazteko eta jakinarazteko epea, jakinarazteko modua eta publikotasun-prozedura.

1.– Aurkeztutako eskaerak prozedura bakar batean izapidetuko dira. Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordearen ebazpen baten bidez amaituko da prozedura, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariak proposatuta. Erakunde parte-hartzaileek prozeduran planteatutako gai guztiak erabakiko ditu ebazpenak.

2.– Ebazpenean ezarriko da eskatutako dirulaguntzak ematen edo ukatzen diren. Laguntzak ematea erabakitzen bada, honako hau adierazi beharko da: zein diren erakundeak, guztira zenbateko dirulaguntza emango zaion horietako bakoitzari, eta zenbat emango zaion finantzatutako proiektu bakoitzari. Ukatutakoen kasuan, ukatzeko arrazoiak jasoko dira.

3.– Ebazpena EHAA-n argitaratzeak jakinarazpen-ondorioak izango ditu. Halaber, argitaratze horren abisu indibidualizatuak egingo dira egoitza elektronikoko «Nire karpeta» zerbitzuaren bitartez. Prozedura ebatzi eta ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko epea gehienez ere sei hilabetekoa izango da, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igarota, ebazpenik argitaratu ez bada, erakunde interesdunek dirulaguntza-eskaera ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan xedatutakoaren arabera.

4.– Ebazpenak ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Osasuneko sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

14. oinarria.– Dirulaguntza justifikatzea.

1.– Diruz lagundutako proiektua egin dela justifikatzeko, irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakunde onuradunek dokumentazio hau aurkeztu behar dute:

a) Txosten teknikoa, helburuak zein mailatan bete diren azaltzen eta ebaluatzen duena. Datuak sexuaren arabera egongo dira banakatuta, hala dagokionean.

b) 2026. urteko gastuen memoria (III. eranskina), zeinetan adierazten baita zer dokumentu aurkeztu diren eta zeintzuk diren horien zenbatekoak. Dirulaguntza emateko ebazpenean zehaz-

tutako gastu-kontzeptuen arabera taldekatu behar dira horiek, aginduaren III. eranskinean jasotako ereduaren arabera. 21. artikuluan aipatutako egoitza elektronikoa ere eskuragarri dago eredu hori.

c) Dirulaguntzaren xede den proiektua benetan gauzatu dela egiaztatzen duten fakturak edo bestelako egiaztagirak, erakunde eskatzailearen ordezkariak izenpetuta. Gainera, agiri horiek egiazkoak direla ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu beharko da.

d) Jarduera edo zerbitzua gauzatu dutela edo dirulaguntzaren xedea bete dutela egiaztatzen duen beste edozein agiri.

Aurkeztutako agiriak jardunbide elektronikoen araubidera moldatu beharko dira, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.4 artikulua arabera, bereziki, eta 27.3 artikuluari dagokionez. Horietan, interesdunek aurkeztutako agiriak zer eskakizun bete behar dituzten arautzen da. Halaber, aplikatzekoak dira DAEn 32. artikuluan eta horren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 72. eta 73. artikuluetan ezarritako estipulazioak.

Dokumentazioa aurkezteko azken eguna 2027ko urtarrilaren 4a da.

2.– Emandako laguntzarekin ordaindutako gastuek dirulaguntza jaso duen jarduera gauzatzean sortutakoak izan behar dute. Hauek izango dira behar bezala justifikatutako gastuak:

a) Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakunde onuradunaren izenean igorritako ordainagiriaren bidez justifikatutakoak, ordainketa burutu dela egiaztatzen dutenak. Soilik onartuko dira 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean sortutako gastuei dagozkien ordainagiriak eta epe horren barruan emandakoak eta ordaindutakoak.

b) Ziurtagirien edo banku-zordunketako ordainketa-agirien bidez justifikatutakoak. Dokumentu horiek finantza-erakundeek egiten dituzte eta fakturretan azaltzen diren datuak izaten dituzte, zenbakia eta seriea izan ezik.

c) Langile lan-kontratudunei dagozkien gastuak izanez gero, soldata-ordainagiriaren bidez justifikatutakoak. Ordainagiriak eredu ofizialen eta Gizarte Segurantzako kotizazio ofizialeko buletinen arabera izan behar dute.

d) Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden noizbehinkako lanetan, enpresariak edo profesionalak ez diren pertsona fisikoek egiten dituztenean (hartzaileak), gastua justifikatzeko, irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakunde onuradunak idazki bat egingo du, eta horren ordezkariak sinatuko du. Idazki horrek, gutxienez, honako hauek jaso behar ditu: ordezkariaren, irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakunde onuradunaren eta hartzailearen izen-abizenak edo izen soziala, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea; eragiketaren deskribapena eta guztizko zenbatekoa; idazkiaren jaulkipen-data; «jaso dut» eta pertsona hartzailearen sinadura; Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipena.

3.– Dirulaguntza jaso aurretik eginiko gastuak ordaindu ahal izango dira jasotako dirulaguntzarekin, baldin eta gastu horiek dirulaguntza jaso duten jardueretan sartzen diren ekintza eta kontzeptuen kostu errealak badira eta 2026. urtean sortutakoak badira.

15. oinarria.– Aurkeztutako justifikazio-agirietako akatsak zuzentzea.

Ikusten bada justifikatzeko aurkeztutako agirietan akatsak daudela edo datuak falta direla, erakundeari hamar egun balioduneko epea emango zaio, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, akatsa zuzendu edo falta diren agiriak aurkez ditzan. Ez badu eskakizun hori epe eta modu egokian betetzen, delako eskakizuna behar bezala egiaztatu gabe dagoela joko da, eta agindu honen 21. oinarrian aurreikusitako ondorioak aplikatuko dira.

16. oinarria.— Dirulaguntzak ordaintzea.

Honela ordainduko da agindu honen babesean emandako dirulaguntza:

1.— Dirulaguntzaren % 70 ordainduko da ebazpena onartu eta argitaratu eta gero, laguntza, esanbidez edo isilbidez, onartzen denean, agindu honen 17.1 oinarrian ezarritako epean.

2.— Gainerakoa (emandakoaren % 30, gehienez ere) ordainduko da erakunde onuradunak dirulaguntza justifikatzen duen dokumentazioa aurkezten duenean, 14. oinarrian aipatzen den moduan.

Edozein ordainketa egin baino lehen, entitateak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzari lotutakoak beteta dituela egiaztatuko da, baita dirulaguntzen alorreko itzulketa-prozeduretatik eratorritako zor guztiak ordaindu dituela ere.

17. oinarria.— Erakunde onuradunen betebeharrak.

Indarrean dagoen araudiak xedatzen dituen eta ezartzekoak diren beste betebeharrak batzuk eragotzi gabe, eta, batez ere, Dirulaguntzei buruzko abenduaren 21eko 20/2023 Lege Orokorraren 14., 27. eta 42. artikuluetan jasotakoak eragotzi gabe, agindu honetan ezarritako dirulaguntzen onuradun diren elkarteek honako betebeharrak hauek dituzte:

1.— Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza eman izanaren ebazpena EHAAn argitaratu eta hamar egun baliodunera, erakunde onuradunek berariaz eta idatziz laguntzari uko egiten ez badiote, laguntza onartutzat joko da.

2.— Dirulaguntzaren xede den proiektua gauzatzea, eta jasotako laguntza guztia bideratzea horretara.

3.— Hirugarren interesdunaren datuei alta emateko Eusko Jaurlaritzaren dokumentua betetzea, edo, hala dagokionean, hirugarrenaren datuak aldatzeko eskabidea betetzea, salbu eta aurretik Eusko Jaurlaritzan aurkeztu badira. Aurkezteko epea aurreko puntuan adierazitako bera izango da (hau da, laguntza onartzeari edo laguntzari uko egiteari buruzko puntuan adierazitakoa).

Hirugarrenen alta elektronikoki izapidetu daiteke, helbide honetan eskuragarri dagoen zerbitzuaren bidez: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/>

4.— Aldaketaren bat izan bada dirulaguntzak emateko eskatu eta kontuan hartu den betekizunen batean, horren berri idatziz ematea organo kudeatzaileari, aldaketa gertatu eta 5 egun balioduneko epean gehienez ere.

5.— Helburu berbererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideren bat lortu bada beste edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen batetik, horren berri ematea organo kudeatzaileari, jakinarazpena jaso eta 5 egun balioduneko epean gehienez ere.

6.— Dirulaguntza emango duen erakundearen aurrean egiaztatzea betetzen direla laguntza jasotzeko eta baliatzeko ezarritako betebeharrak eta baldintza guztiak, baita horretarako arrazoia zen jarduna gauzatu dela ere. Garatutako jardueren adierazleek sexuaren arabera bereizitako datuak jasoko dituzte, DAEn 14.b) artikuluan adierazitakoaren arabera.

7.— Osasun Sailarekin lankidetzan aritzea jarduera horiek egiaztatu, ikuskatu, segimendua egin, ebaluatu eta kontrolatzeko prozeduretan, eta honako kontrol-saio hauen mende egotea: Eusko Jaurlaritzaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoari dagozkionak —Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kontura emandako dirulaguntzak diren aldetik—, eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren berariazko araudian aurreikusitakoak.

8.– Hautatutako erakundeek agindu honen bidez finantzatutako programak edo jarduerak argitaratzen badituzte, honako testu hau jaso beharko dute espresuki: «Osasun Sailak diruz lagundua».

9.– Egitasmoak informazio materiala argitaratzea ere aurreikusten badu –idatzia zein ikus-entzunezkoa–, argitaratu aurretik Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren oniritzia eta baimena lortu beharko ditu. Horretarako, helbide elektroniko honetara bidali beharko du materiala: secresida@osakidetza.eus. Erantzuteko epea aste batekoa izango da gehienez.

18. oinarria.– Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea.

Dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu ahal izango da, baldin eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –betiere, dirulaguntzaren xedea betetzat jotzen bada– eta, hala badagokio, dirulaguntza horrekin batera beste dirulaguntza edo laguntzaren bat jaso bada Eusko Jaurlaritzak, beste administrazio publiko batzuek edo beste ente publiko zein pribatu batzuek emana. Horretarako, dagokion aldaketa-ebazpena emango du Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordeak, eta, ebazpen horretan, esleitutako dirulaguntzen zenbatekoak egokituko dira. Horiek emateko, honako irizpide eta muga hauek aplikatuko dira:

1.– Gastuen justifikazioan % 25eko edo hortik beherako aldea egonez gero dirulaguntzarako aurkeztutako eta aintzat hartutako aurrekontuarekiko, eta hasieratik aurreikusi diren helburu guztiak lortu baldin badira, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da proportzio beraren arabera eta dagokion aldaketa-ebazpenaren bidez.

2.– Aurkeztutako aurrekontuarekiko % 25 baino gehiagoko aldea baldin badago, dirulaguntzarako eskubidea galduko da.

Betiere, prozedura bat etorriko da DAEren 16.4 eta 25. artikuluetan ezarritakoarekin.

Bi kasuetan, soberan jasotako zenbatekoak itzultzera behartuta egongo dira erakunde onuradunak, DAEren 40. artikuluan xedatutakoaren arabera.

19. oinarria.– Diruz lagundutako proiektuaren jarraipena.

Osasun Sailak beharrezkotzat jotzen dituen gainbegiratze, ikuskatze eta egiaztatze guztiak egingo ditu, xedapen honetan ezarritako arau guztiak betetzen direla bermatzeko. Halaber, publikoki erabili ahal izango ditu, une oro, emandako dirulaguntzen bidez gauzatutako programen eta jardueren edukiak eta emaitzak.

20. oinarria.– Izapidetze elektronikoa.

1.– Entitate interesdunek bitarteko elektronikoak erabiliz soilik eskatu, kontsultatu eta egin beharko dituzte prozedura honen izapide guztiak.

2.– Ahalordeen erregistro elektronikoari buruzko informazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan dago eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ordezkarrien-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/>

3.– Elkartek sinadura elektroniko aitortuko sistemen bidez identifikatuko dira. Identifikazio elektronikoa egiteko onartutako baliabideak eskuragarri daude Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektroniko honetan: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>

4.– Laguntzak izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak, ereduak, eskaera-inprimakiak eta izapidetze elektronikorako zuzeneko sarbidea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio

Publikoaren egoitza elektronikoan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/servicios/0027513/web01-tramite/es/>

5.– Eskabidearen ondorengo izapideak eta izapideen jarraipena bitarteko elektronikoen bidez egin beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atala erabilita: <http://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

21. oinarria.– Ez-betetzeak eta diru-itzulketak.

1.– Entitate onuradunak ez baditu betetzen agindu honen 17. oinarrian, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan eta aplikatzekoak diren gaine-rako arauetan ezarritako betebeharrak, galdu egingo du emandako laguntza jasotzeko eskubidea.

2.– Osasuneko eta Eraldaketa Digitaleko sailburuordeak hasi eta ebatziko du itzultzeko prozedura, ez-betetzeari buruzko espedientea ireki eta entitate interesdunari entzun ondoren. Espediente horretan, administrazio-ebazpen bidez adieraziko da dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela, eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola jasotako zenbatekoak, baita dagozkion berandutze-interesak ere, bat etorritz Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean itzulketari, horren kausei eta jarraitu beharreko prozedurari buruz ezarritakoarekin, 20/2023 Legearen 40. artikuluekin eta arlo horretan indarrean dagoen legeriarekin.

3.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan adierazitako itzulketa-arrazoiez gain, honako hauek ere dirulaguntza jasotzeko eskubidea gal-tzeko kausa izango dira, eta jasotako dirulaguntza itzuli behar izatea ekarriko dute:

a) Entitate interesdunak dirulaguntzari uko egitea, aurretik dirulaguntzaren ordainketa jaso badu.

b) Agindu honetako 4. oinarrian jasotako baldintzak ez betetzea.

c) Justifikazioak ez hartzea eskabidean aurkeztutako proiektuaren aurrekontu osoa, eta bi aurrekontuen artean % 25etik gorako desbideratzea egotea.

4.– Agindu honetako 5. oinarrian xedatzen denaren arabera, halaber, jasotako laguntza itzuli egin beharko da baldin eta laguntzaren zenbatekoak diruz lagundutako proiektuaren kostua gain-ditzen badu, berak bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera. Kasu horretan, soberako kostua eta dagokion berandutze-interesa soilik itzuli beharko da. Interes hori dirulaguntzen arloan aplikatzekoa dena izango da.

5.– Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatuz gero, laguntzaren parte bat itzuli beharko da, proportzionaltasun-printzipioaren arabera, eta, betiere, baldintzak guztiz bete ez arren nabarmen bete badira eta entitateak egiaztatzen badu bere konpromisoak betetzen ir-mo ahalegindu dela. Nolanahi ere, aldaketak ezin izango du inola ere eragin jarduerak lotura galtzea deialdiaren 1. oinarrian adierazitako xedearekin, ezta proiektuaren beraren xedea bete gabe gera-tzea ere.

Halakorik gertatuz gero, laguntza aldatzeko ebazpenean finkatutako zenbatekoaren soberakina itzuli beharko da. Ebazpen hori deialdiaren 11. oinarrian aipatzen diren eskabideak baloratzeko irizpideei jarraituz bideratuko da.

6.– Jada ordaindutako dirulaguntza baino zenbateko txikiagoko gastuak justifikatuz gero, dirulaguntza murriztu egingo da justifikatu gabeko zenbatekoa kenduta, eta, ondorioz, entitate onuradunek proportzionalki itzuliko dituzte jasotako dirulaguntzak.

7.– Itzultzen diren diru kopuruak diru-sarrera publikotzat hartuko dira ondorio guztietarako.

22. oinarria.– Datuen babesia.

1.– Deialdi hau kudeatzeko eskuratutako datu pertsonalen tratamendua honako arau hauen mende egongo da: 2016ko apirilaren 27ko (EB) 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluarena (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa), eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa.

2.– Datuak babesteko ordezkariak tratamendu-jardueren erregistroan aurreikusitako «Osasun publikoaren eta adikzioen arloko laguntzak eta dirulaguntzak» tratamendu-jarduerarako presatutako klausuletan oinarrituta, ezartzen da datu pertsonalak tratatu egingo direla eta Osasun publikoaren eta adikzioen arloko laguntzak eta dirulaguntzak izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla.

3.– Datuak babesteari buruzko oinarrizko informazioa.

– Arduraduna: Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

– Xedea: osasun publikoaren eta adikzioen arloko laguntza ekonomikoak eta dirulaguntzak kudeatzea.

– Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz egin beharreko eginkizun bat betetzeko.

– Hartzaileak: bankuak, kutxak eta landa-kutxak; ogasun publikoa eta zerga-administrazioa; autonomia-erkidegoko bestelako organoak.

– Eskubideak: datuak irispidean izatea, zuzentzea eta ezerezteia, baita informazio gehigarrian jasotako bestelako eskubideak ere.

– Informazio gehigarria: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gar-dentasuna/087600-cap2-eu.shtml>

4.– Datuen babesari buruzko araudia:

– (EB) 2016/679 Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa.

– 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.

II. ERANSKINA

IRABAZI-ASMORIK GABEKO GIZARTE-EKIMENEKO ERAKUNDEENTZAKO LAGUNTZEN
ESKABIDE ELEKTRONIKOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN 2026AN GIB/HIESA, C
HEPATITISA ETA SEXU TRANSMISIOKO INFEKZIOAK PREBENITZEKO ETA KONTROLATZEKO
PLANAK GAUZATZEKO

* Nahitaezko eremuak

Instrukzio-organo honi zuzendua: OSASUN PUBLIKOAREN ETA ADIKZIOEN ZUZENDARITZA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Eskatzailea/Konektatutako pertsona

Honela dihardu:

Espedienteko pertsona edo entitate interesduna

*Identifikazioko dokumentua	*Zenbakia	*Izena	*Lehen abizena	*Bigarren abizena	*Sexua

Honen ordezkari izan:

Pertsona edo entitate ordezkatuaren datuak

*Identifikazioko dokumentua	*Zenbakia	*Izena	*Lehen abizena	*Bigarren abizena	*Sexua

JAKINARAZPENETARAKO DATUAK

Jakinarazpenak eta komunikazioak helbide honetara bidaliko dira:

Espedientea izapidetzen ari den bitartean, Administrazioak honi bidaliko dizkio jakinarazpenak:

Jakinarazpen eta komunikazioetarako bidea *

Elektronikoa: Nire Karpetako jakinarazpen eta komunikazioen ontzira bidaliko dira. Sartzeko, identifikazio-bitarteko elektronikoa bat behar da.*Kanal elektronikoari buruzko oharra: jakinarazpen elektronikora sartzen ez bazara, jakinarazitzat joko da Nire Karpetan eskuragarri jarri eta 10 egun natural igaro ondoren. Adierazitako epea bete ondoren, jakinarazpena atzera bota duzula ulertuko da, eta hala jasoko da espedientean. Izapidea egintzat joko da, eta administrazioak aurrera jarraituko du prozedurarekin.*

Abisuak jasotzeko datuak

Abisu bat bidaliko dizugu posta elektronikora eta telefono mugikorrera, jakinarazpenen bat edo komunikazioen bat daukazunean Nire Karpetan.

Helbide elektronikoa*	Berretsi helbide elektronikoa	Telefono mugikorra

Komunikazio-hizkuntza *

Mezu elektronikoaren eta abisu-mezuaren bitartez bidaliko zaizkizun jakinarazpenak eta komunikazioak zuk adierazitako hizkuntzan egongo dira.

☐ Euskara☐ Gaztelania

Datuak erabiltzeko baimena *

Komunikaziorako eta abisuetarako nire datuak Eusko Jaurlaritzako sailekin eta organismoekin ditudan harremanetan oro har erabiltzea nahi dut.

Komunikazio eta abisuetarako nire datuak espediente honen kudeaketarako soilik erabiltzea nahi dut.

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Eskabidean ageri diren datu pertsonalak «Osasun publikoaren eta adikzioen arloko laguntzak eta dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueran sartu eta tratatuko dira.

Arduraduna: Osasun Saileko Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

Helburua: osasun publikoaren eta adikzioen arloko laguntza ekonomikoak eta dirulaguntzak kudeatzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

Hartzaileak:

- Bankuak, kutzak eta landa-kutzak
- Ogasun publikoa eta zerga-administrazioa
- Autonomia-erkidegoko beste organo batzuk

Eskubideak: eskubidea duzu datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezerezteko; era berean, informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere badituzu.

Informazio gehigarria: datuen babesari buruzko informazio gehigarria eta xehea duzu web-orri honetan:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/087600-cap2-eu.shtml>

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko:

https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf

INPRIMAKIKO DATUAK

Entitate eskatzailearen datu fiskalak dauden lurraldea/probintzia

Lurraldea / Probintzia	
------------------------	--

Datu orokorrak

Entitatearen izena	
Entitatearen xedea	
Proiektuaren izena	

Harremanetarako arduraduna

Izen-abizenak	Telefonia	Helbide elektronikoa

Zein jardueratako eskatzen den laguntza

A. GIBarekin, STlekin eta CHarekin lotutako jardueren lehentasun-maila erakundearen xedean (GIBarekin, STlekin eta CHarekin lotutako jarduerak berariaz sartzeari erakundearen estatutuen xedeetan; Jarduera horiek ildo estrategiko nagusi edo lehentasunezko zat sartzeari erakundearen plan, programa edo memorietan; Jarduerak denboran jarraikortasuna eta egonkortasuna izatea; GIB, STI eta CHan berariazko prestakuntza izatea langileek eta/edo boluntarioek; Jardueren lerrotze-maila arlo horretako estrategia eta plan autonomikoekin, nazionalekin edo nazioartekoekin).

--

B. Proiektuaren justifikazioa, zer egoerari erantzun nahi zaion (deskribapena), zer faktoreren gainean eragin nahi den; helburu orokorrak eta berariazkoak aipatu eta azaldu.

--

C. Programaren edukiaren eta garapenaren deskribapena: jardueren deskribapena, lan-egutegia, giza baliabideen eta baliabide materialen deskribapena, onuradunen kopurua.

--

D. Proiektuari buruz aurreikusitako ebaluazioa: espezifiko onuradunen adinaren, sexuaren eta jatorriaren arabera; proiektuaren jarraipenaren eta inpaktuaren adierazleak; onuradunen gogobetetasun-adierazleak.

--

E. Ekitatearen ikuspegia parte hartzea programan: arreta jartzea genero-desberdintasunei; bereziki zaurgarriak diren edota gizarte-bazterketa jasateko arriskuan daudenentzako estrategiak; lurralde mailako desberdintasunei arreta.

F. Proiektuaren parte-hartze maila (xede-populazioak eta/edo haien senideek parte hartzea proiektua diseinatzen, abian jartzen eta ebaluatzen; Beste esparru batzuetako elkarte edo entitateekin lankidetzak).

G. Bermatzea Ingurune euskaldunetan euskararen erabileran edo euskaraz komunikatzeko gaitasunean hizkuntza-eskubideak.

PROIEKTUAREN AURREKONTU OSOA ETA ESKATUTAKO ZENBATEKOA

ZUZENEKO GASTUAK

Kontzeptua	Aurrekontua guztira	Laguntza honen kontura eskatutako zenbatekoa
Langileak (nominak eta gizarte-segurantzako gastuak)		
Profesional independenteen zerbitzuak		
Ekipamenduak eta materialak		
Argitalpenak eta komunikazio-ekintzak		
Bestelako gastuak (zehaztu)		
Zuzeneko gastuak, guztira		

ZEHARKAKO GASTUAK

Kontzeptua	Aurrekontua guztira	Laguntza honen kontura eskatutako zenbatekoa
Alokairuak eta errentamenduak		
Dietak eta joan-etorriak		
Kudeaketa eta administrazioa		
Zeharkako gastuak, guztira		

Eskatutako zenbatekoa guztira (zuzeneko gastuak + zeharkako gastuak)

Proiektua finantzatzeko iturriak (egiaztatutako ekarpenak)

Kontzeptua	Deskribapena	Zenbatekoa eurotan
Entitatearenak berarenak		
Erabiltzaileen ekarpenak		
Beste erakunde batzuenak (zeintzuk)		
Beste diru-sarrera batzuk (zehaztu)		
Finantzaketa-iturriak, guztira		

Proiekturako eskatutako beste laguntza batzuk (ebazteko daudenak)

Erakundea	Eskatutako zenbatekoa
Guztira	

Eskatutako zuzeneko gastuek aurrekontuan jasotako zuzeneko gastuak baino txikiagoak edo berdinak izan behar dute.

Zeharkako kostuak, betiere dirulaguntzaren xede den proiektuari argi eta garbi egozteko modukoak badira formulazioa, jarraipena eta ebaluazioa egin ahal izateko, ezin dira eskatutako laguntzaren % 15 baino gehiago izan.

Eskatutako zenbatekoaren eta beste finantzaketa-iturri batzuetatik jasotako zenbatekoaren baturak ezingo du gainditu proiektuaren aurrekontu osoa.

ENTITATEAREN DATUAK

Izena, erregistroan edo erroldan agertzen den bezala	Erregistro-data	Erregistro-zenbakia

Estatutuen arabera, hau da entitatearen helburua (hitzez hitz kopiatu):

--

ZUZENDARITZA-BATZORDEKO KIDEAK

Entitatearen kide anitzeko gobernu-organoak/zuzendaritza-batzordeak —eskabidearen datan indarrean denak eta dagokion erroldan edo erregistroan erregistratuta dagoenak— kide hauek ditu (hitzez hitz kopiatu, eta izenak eta karguak adierazi. Entitatearen estatutuek aurreikusten ez badute kide anitzeko gobernu-organo bat egotea, zehaztu batzordeburu, idazkari eta diruzain izango diren pertsonen izenak eta karguak):

Batzordeburua:

Izena	Kargua

Emakumeak, guztira	Gizonak, guztira
--------------------	------------------

ADIERAZPENAK

Eskatu al duzu xede eta helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio publikotatik edo entitate publiko edo pribatutatik? (puntu honetako datuak memoria-agirian xehatu behar dira)*

☐ Bai ☐ Ez

Onartu al zaizu xede eta helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio publikotatik edo entitate publiko edo pribatutatik? (puntu honetako datuak memoria-agirian xehatu behar dira)*

☐ Bai ☐ Ez

Jaso al duzu xede eta helburu bererako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio publikotatik edo entitate publiko edo pribatutatik?*

☐ Bai ☐ Ez

Entitate eskatzailea legez dago osatuta eta erregistroan izena emanda (erregistroko izena eta zenbakia eman):

Erregistro-izena: *

Erregistro-zenbakia: *

Entitate eskatzailea ez dago zigor- eta administrazio-arloko ebazpen irmo baten bidez zigortuta dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin, indarreko legeriaren arabera; ez dago, halaber, Elkartzeko Eskubidea Arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren 4. artikulua 5. eta 6. paragrafoetan aurreikusitako debeku-kausaren baten eraginpean, ezta horretarako ezgaitzen duen bestelako legeria aplikagarrian aurreikusitakoen eraginpean ere.

Entitate eskatzailea ez dago epai irmo baten bidez zigortuta dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin.

Entitate eskatzaileak egunean ditu legez ordaindu behar dituen zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehazturik dagoen bezala.

Entitate eskatzaileak egunean ditu dirulaguntzak itzultzearen ondoriozko betebeharrak.

Entitate eskatzailea ez dago deklarata borondatezko konkurtsoan, ezta kaudimenik gabekotzat edo konkurtsoan ere (non eta konkurtsoan ez duten hitzarmen bat adostu); ez dago, halaber, esku-hartze judizialaren mende, ezta konkurtsoa sailkatzeko epai baten bidez desgaitua ere.

Entitate eskatzaileak ez du eragin administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmoa, errudun deklarata izan delako.

Administratzaileak edo entitate eskatzailearen legezko ordezkaritza dutenak ez daude abenduaren 26ko 52/1984 Legean eta ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean, eta ez dute ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargurik.

Entitate eskatzaileak betetzen du emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko Estatuko araudia, eta badu berdintasun-plan bat eta ezarrita ditu sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak, 50 langiletik gorako entitatea izateagatik.

Entitate eskatzaileak ez du administrazio-zehapenik edo zehapen penalik jaso sexuan oinarritutako diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik.

Betetzen du desgaitasuna duten pertsonentzat legez gorde behar diren lanpostuen kuota, edo, kuota betetzen ez badu, egiaztatu du bestelako neurri batzuk hartu dituela hori betetzeko.

Entitate eskatzaileak betetzen ditu laguntza hauen onuradun izateko indarreko araudian ezartzen diren eskakizunak.

Entitate eskatzaileak konpromisoa hartzen du proiektuak gainfinantzaketarik ez izateko, beste laguntza batzuk ere jasotzea onartzen bada.

Egiazkoak dira eskabidean eta erantsitako agirietan emandako datuak.

BAIMENAK

Eskabide hau aurkezteak esan nahi du deialdiko organo kudeatzaileari baimena ematen zaiola zuzenean egiaztatu dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla.

Ukatu nahi al duzu baimen hori?

☐ Bai, ukatu egiten dut baimena, eta dagozkion agiriak eranstean dizkiot eskabideari.

AURKEZTUTAKO AGIRIAK

Agiri mota	Izena
Memoria (hautazkoa)	
Borondatezko legezko ordezkaritza	
Hirugarrenaren altaren agiria	
Entitatearen estatutuak	
Bestelakoak	

III. ERANSKINA

GASTUAK JUSTIFIKATZEKO MEMORIA.

IRABAZI-ASMORIK GABEKO GIZARTE-EKIMENEN ERAKUNDEEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK,
GIB/HIESA, C HEPATITISA (CH) ETA SEXU TRANSMISIOKO INFEKZIOAK (STI) PREBENITZEKO
ETA KONTROLATZEKO PLANAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN GAUZATZEKO

0 – IDENTIFIKAZIO-DATUAK

Elkartearen izena*	
Proiektuaren izenburua*	
Espediente-zenbakia*	
Emandako zenbatekoa	

ZUZENNEKO GASTUAK: kontzeptua	Egindako programaren gastuak, guztira	Laguntza honi egotzitako zenbatekoa	AURKEZTUTAKO FAKTUREN ZERRENDA							
			Zk.	Agiri mota	Kontzeptua	Jaulkitzailea	Data	Zenbatekoa	% egotzia	Zenbateko egotzia
Langileak (nominak eta gizarte- segurantzako gastuak)										
Profesional independenteen zerbitzuak										
Ekipamenduak eta materialak										
Argitalpenak eta komunikazio-ekintzak										
Bestelako gastuak (zehaztu)										
Bestelako gastuak (zehaztu)										
ZUZENNEKO GASTUAK, GUZTIRA										

ZEHARKAKO GASTUAK: kontzeptua	Egindako programaren gastuak, guztira	Laguntza honi egotzitako zenbatekoa	AURKEZTUTAKO FAKTUREN ZERRENDA							
			Zk.	Agiri mota	Kontzeptua	Jaulkitzailea	Data	Zenbatekoa	% egotzia	Zenbateko egotzia
Alokairuak eta errentamenduak										
Kudeaketa eta administrazioa										
Bulegoko materiala										
Bestelako zerbitzuak (elekttrizitatea, gasa)										
Bestelako gastuak (zehaztu)										
ZEHARKAKO GASTUAK, GUZTIRA										

Proiektua finantzatzeko beste iturri batzuk	Zenbatekoa eurotan
Entitatearenak berarenak	
Erabiltzaileen ekarpenak	
Beste erakunde batzuk (zehaztu)	
Beste erakunde batzuk (zehaztu)	
Bestelako diru-sarrerak (zehaztu)	
Guztira	

Deialdi honen bidez emandako zenbatekoa gehi beste finantzaketa-iturri batzuen bidez jasotakoa ezin da egindako gastua baino handiagoa izan.

Adierazten dut egiazkoak direla justifikazioan eta justifikazioarekin batera doazen agirietan emandako datuak.

Izenpetua:

Entitatearen arduraduna/presidentea